

ETAPA 1.

LANESTOSA - LANZAS AGUDAS | 23,7 KM

Desnibela-desnivel +957m / -845m



GR 123

BIZKAIKO BIRA OINEZ
SENDERISMO
HIKING

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA



Topogida - Topoguía





GR¹²³

BIZKAIKO BIRA

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA

ONEZ
SENTERISMO
HIKING



66

1. ETAPA - Lanestosa - Lanzas Agudas | 23,7 Km / 7 h 30' h

Desnibela-desnivel +957m / -845m

nosha
aysa



MIDE datuak / datos MIDE



Ingurunea
Medio



Ibilbidea
Itinerario



Desplazamendua
Desplazamiento



Ahalegina
Esfuerzo



MIDE ordutegia
Horario MIDE

1. Etapa

2

2

2

4

7h 30'

Arrisku faktore bat baino gehiago daude
Hay más de un factor de riesgo

Jarraipena adierazten duten bizkexka edo senalizatzen
Sendas o señalización que indican la continuidad

Burdibidetatik doan ibilaldia
Marcha por canchales de herradura

6 tik 10 ordura bitareteko benetako ibilaldia
De 6 a 10 horas de marcha efectiva



Ikurrak - Iconos - Icons

Zu hemen zaude
Ud, está aquí
You are here

Autoz iristeko puntua
Acceso con vehículo
Vehicle access

Baseliza
Ermita
Hermitage

Aterpea
Refugio

Ondare arkeologikoa
Patrimonio arqueológico
Archaeology Heritage

Atsedentekua
Área recreativa
Recreational area

Ikuspegi panoramikoa
Vista panorámica
Panoramic view

Iturria
Fuente
Source

Kobazuloa
Cueva
Cave

Mendi tontorra
Cima
Mountain

Ondare monumentala
Patrimonio monumental
Monumental Heritage

Megalitoa
Megalith
Megalith



Web Euskera



Web Castellano



Track

EU

Hasiera”

GR 123 ibilbideko 1. etapak Bizkaia osoari bira ematen dion ibilaldi handia hasten du, lurraldearen muturrik basatienean. Ia 24 kilometroko ibilbide zorrotzean zehar, Lanestosa eta Lanzas Agudas (Karrantza) artean, bidezidorrak, abeltzaintzako pistak eta mendiko bide zaharrak zeharkatzen ditu.

Ibilbidea Bizkaia, Burgos eta Cantabria arteko mugako izaerak markatzen du; bertan, ibiltaria Ordunte mendilerroko tontor biluzien lasaitasun zabal eta isilean murgiltzen da. Mendiko zeharkaldi soil bat baino gehiago, lehen etapa honek Enkarterri eskualdearen sarrera geografiko eta historikoa ere eskaintzen du, Bizkaiko lurralderik berezietako batean barrena.

ES

Inicio”

La etapa 1 de la GR 123 inaugura la gran vuelta a Bizkaia desde su extremo más indómito. A lo largo de casi 24 exigentes kilómetros entre Lanestosa y Lanzas Agudas (Karrantza), el sendero serpentea por pistas ganaderas y viejos caminos de montaña.

Se trata de un recorrido marcado por el carácter fronterizo entre Bizkaia, Burgos y Cantabria, donde el caminante se sumerge en la serena inmensidad de las cumbres desnudas de la Sierra de Ordunte. Más que una simple travesía montañera, esta primera etapa constituye una introducción geográfica e histórica a Las Encartaciones, una de las comarcas más singulares de Bizkaia.



GR[®] 123

BIZKAIKO BIRA

OINEZ
SENDERISMO
HIKING

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA

LA



EU

KM - 0

Lanestosa”

Lehen etapa hau Lanestosan hasten da, Bizkaiako udalerririk mendebaldekoenean eta lurraldeko txikienetako batean. GR 123 hemen hastea simbolismo handiko kontua da: herri txiki honetatik abiatzen da, eta hemen bertan amaitzen da Bizkaiari bira ematen dion ibilbide handia.

Mendeetan zehar, Lanestosa igarobide estrategikoa izan da Kantabriako haranen eta Bizkaiaren barrualdearen artean; horrek merkataritza jarduerak eta mandazainen nahiz merkatarien joan-etorria sustatu ditu.

Lehen metroetan, bidezidorrak herrigunea atzean uzten du, baratzeak, larreak eta baserri txikiak zeharkatzen dituzten landa-bideetatik aurrera eginez.

Lanestosako erdigunetik, Calera ibaiertzeko bidea jarraituz ibilbide atsegin bati ekingo diogu. Kilometro batzuetan zehar, bidea ia laua da, eta haranaren bihotzean sartzen gaitu Ventilla, Valnera eta La Calera del Prado auzoetatik igaroz.

Azken auzo honetan bertan aldatzen da erritmoa: hemendik aurrera, ibilbideak pixkanakako igoera bati ekiten dio Lanestosa zaintzen duten mendietarantz. Orain hormigoizko bide bihurtuta dagoen pistak berde biziko larreen artean egiten du gora; mendeetako nekazaritza eta artzaintza tradizioaren lekuko isilak dira paisaia hauek, Arreturas gainera iritsi arte lagunduko digutenak.

ES

Lanestosa”

Esta primera etapa comienza en Lanestosa, el municipio más occidental de Bizkaia y uno de los más pequeños del territorio. Comenzar aquí la GR 123 tiene un fuerte simbolismo: desde esta pequeña villa se inicia, y también se cierra, la gran vuelta senderista al territorio histórico.

Durante siglos, Lanestosa fue un lugar estratégico de paso entre los valles cántabros y el interior de Bizkaia, lo que favoreció el desarrollo de actividades comerciales y el tránsito de arrieros y mercaderes. En los primeros metros, el sendero abandona el núcleo urbano siguiendo caminos rurales que atraviesan huertas, prados y pequeños caseríos. Desde el núcleo urbano de Lanestosa iniciaremos un cómodo paseo siguiendo la conocida Senda Fluvial del Calera. Durante varios kilómetros, la ruta avanza prácticamente llana, adentrándonos en el corazón del valle a través de los barrios de Ventilla, Valnera y La Calera del Prado.

Es precisamente en este último barrio donde el itinerario cambia de ritmo y emprende un ascenso progresivo hacia las cumbres que custodian Lanestosa. El camino, ahora hormigonado, serpentea entre prados de un verde intenso, vestigios silenciosos de siglos de tradición agrícola y pastoril que nos acompañan hasta alcanzar el Alto de las Arreturas.



EU

Arreturas

Puntu honetatik aurrera Salduerorako pistatik jarraituko dugu. Bidea etengabe igotzen joango da, pago baso trinko batean sartzen den bitartean. Igotzen goazen heinean, ikuspegia pixkanaka zabaltzen da, Karrantzako haranaren ikuspegia agerian utziz.

Goranko bideak Ordunteko sai-haztegiaren ondotik eramango gaitu. Hildako animaliez elikatzen diren hegaztientzako prestatutako gune hau 1980ko hamarkadan eraiki zen, saiak lehenagotik erabiltzen zuten leku berean; horri esker, harrapari handi hauen presentzia sendotu egin da inguruan.

Pixkanaka basoa atzean uzten dugu, eta paisaia irekiago bihurtzen da. Urrunean, kareharri mesozoikoz osatutako mendiak ageri dira, profil zorrotz eta malkartsuekin; beheko larre berdeekin kontraste ikusgarria sortzen dute.

Saltipiñiako borda igaro ondoren, badirudi pistak atsedean pixka bat ematen digula. Hala ere, igoerak jarraitzen du, malda leun baina etengabearekin, Saldueroko lautadara iritsi arte. Igoeran zehar, eskuin aldean Zalama mendiaren magal ikusgarriak zabaltzen dira.

ES

Arreturas

KM - 9

A partir de este punto seguimos por la pista de acceso a Saldiero, que continúa ganando altura sin tregua mientras se adentra en un cerrado hayedo. A medida que ascendemos, la perspectiva comienza a abrirse generosamente, revelando la silueta del valle de Karrantza.

La subida, constante y sin descanso, nos conduce junto a la buitrera de Ordunte, un espacio acondicionado para la alimentación de aves necrófagas. Este muladar fue construido en los años 80 en un emplazamiento que los buitres ya utilizaban tradicionalmente, lo que ha permitido consolidar la presencia de estas grandes rapaces en la zona.

Poco a poco dejamos atrás el bosque y el paisaje se vuelve más abierto. En el horizonte aparecen las montañas de caliza mesozoica, que imponen su presencia con perfiles abruptos y escarpados, creando un contraste espectacular con el suave verdor de las praderas que se extienden en las cotas más bajas.

Tras pasar la cabaña de Saltipiña, la pista parece concedernos un pequeño respiro. Sin embargo, la subida continúa de forma constante hasta alcanzar la meseta de Saldiero. Durante este ascenso, a nuestra derecha se abren las imponentes laderas del Pico Zalama.

TOSA

Mendi hau da Ordunte mendilerroako tontorrik garaiena. Karrantzako haranaren eta Burgosko Valle de Menaren artean altxatzen da. Horregatik, Enkarterri eskualdeko punturik altuena da, eta lurraldeko mendirik aipagarrienen artean dago, besteak beste Gorbeia, Anboto eta Lekanda mendiekin batera.

Gure ibilbidea bertatik igarotzen ez bada ere, aipamen berezia merezi dute “Zalamako turberak” edo zohikatzak. Mendiko hezegune hauek landare materia partzialki deskonposatuaren (zohikatzaren) metaketaz sortzen dira, ura denbora luzez geldirik mantentzen den lekuetan.

Zalamako turbera balio ekologiko handiko ekosistema da: ura metatzeko, karbonoa harrapatzeko eta flora zein fauna espezializatuari bizilekua emateko gaitasun handia du. Gainera, halako turberak ez dira ohikoak Kantauri isurialdean, eta interes zientifiko handia dute; izan ere, milaka urtez metatutako sedimentuek eta landare-hondarrek klimaren eta paisaiaren bilakaera aztertzeke aukera ematen dute.

Esta montaña, la cumbre más alta de la Sierra de Ordunte, se eleva entre el valle de Karrantza y el burgalés Valle de Mena. Por ello constituye el punto culminante de Las Encartaciones y una de las elevaciones más destacadas del territorio, junto a montañas emblemáticas como Gorbeia, Anboto y Lekanda.

Aunque nuestra ruta no pasa directamente por ella, merece una mención especial la cercana turbera del Zalama. Este humedal de montaña se forma por la acumulación de materia vegetal parcialmente descompuesta (turba) en zonas donde el agua permanece estancada durante largos periodos. La turbera de Zalama constituye un ecosistema de gran valor ecológico por su capacidad para almacenar agua, capturar carbono y albergar flora y fauna altamente especializada.

Además, estas turberas son paisajes poco comunes en la cornisa cantábrica y poseen un gran interés científico, ya que conservan sedimentos y restos vegetales que permiten reconstruir la evolución del clima y del paisaje a lo largo de miles de años.



KM - 17,5

EU

Karrantza”

Saldieron gaudela, ibilbideak lautada zeharkatzen duen pistatik jarraitzeko aukera ematen digu. Inguru hau larre zabalek eta txilardiek osatzen dute, tradizionalki behi eta zaldien abeltzaintzarako erabili izan direnak.

Abeltzaintza jarduera errazteko, hainbat azpiegitura eraiki dira hezegunerik ahulenetatik urrun. Horien artean nabarmentzen dira edanleku eta igurtzilekuak. Urrutitik begiratuta menhir neolitikoak diruditen harri-bloke handi hauek mendilerrotik bertatik ateratakoak dira, eta bertikalki jarrita daude ganaduak udan eltxoen eta parasitoen zitzadak eragindako azkura arintzeko igurtzi ahal izateko.

Hemendik aurrera, bidearen baliza bertikalei arreta handiz jarraitzea komeni da, lurzoruaren ezaugarriek ez baitute margo egindako markaketarik onartzen. Ekialderantz egingo dugu aurrera Ordunte mendilerroan barrena, mendebaldean Zalama mendia utzita eta Peñarada mendiaren tontorrera begira.

ES

Carranza”

Ya en Salduero, la ruta nos permite avanzar por la pista que atraviesa la meseta. Este paraje se caracteriza por sus amplias praderas y brezales, aprovechados tradicionalmente por ganado vacuno y equino.

Para favorecer la explotación pecuaria en esta zona se han construido diversas infraestructuras ganaderas en puntos alejados de los humedales más vulnerables, destacando los abrevaderos con rascaderos. Estos rascaderos, que a lo lejos pueden parecer menhires neolíticos, son en realidad grandes bloques de piedra extraídos de la propia sierra y colocados estratégicamente en vertical para que el ganado pueda rascarse y aliviar las picaduras de mosquitos y parásitos durante el verano.

En Salduero seguiremos atentamente las balizas verticales del camino, ya que en esta zona la naturaleza del terreno impide el marcaje con pintura. Avanzaremos hacia el este por la Sierra de Ordunte, dejando al oeste la cima del Zalama y dirigiéndonos hacia la cumbre de Peñarada.

KARRA



EU

Etapa honetako goialdeak ikuspegi panoramiko ikusgarriak eskaintzen ditu: iparraldera, paisaia Bizkaia aldera zabaltzen da; hegoaldera, berriz, Burgoseko lurak ikus daitezke, Ordunteko mendikatearen lerroari jarraituz. Gailur hauetan askotan indarrez jotzen duen haizeak are gehiago indartzen du haranen arteko benetako muga natural batean ibiltzearen sentsazioa.

Ur-banaketa lerroari jarraituz aurrera egingo dugu Portillo del Medioraino. Handik gutxira, Baljerri mendia tontorrera igotzeko azken maldari ekin aurretik, kordala utzi eta askotan lokaztuta egoten den bidezidor bat hartuko dugu, beherantz nabarmen jaisten hasten dena.

ES

La zona alta de esta etapa nos brinda unas vistas panorámicas espectaculares: al norte, el paisaje se extiende hacia Bizkaia, mientras que al sur divisamos las tierras de Burgos, siguiendo el cordal de Ordunte. El viento, que suele soplar con fuerza en estas cumbres, refuerza la sensación de caminar por una auténtica frontera natural entre valles, salpicada de majadas y refugios ganaderos que atestiguan la relevancia histórica del pastoreo en la región.

Continuaremos por la divisoria de aguas hasta alcanzar el Portillo del Medio, justo antes de acometer la subida final hacia la cumbre del Baljerri. En este punto abandonamos el cordal para tomar una senda, a menudo embarrada, que comienza a descender con rapidez.



NTZA

EU

Otsoa Ordunte mendilerroan”

Ordunte mendilerroan otso iberiarraren familia-talde bat bizi da (3 eta 6 ale artean), 2021etik LESPRES zerrendaren bidez babestutako espeziea. Bizkaian sartzeko korridore biologiko nagusietako bat denez, bere presentzia funtsezkoa da ekosistemaren orekarako; izan ere, modu naturalean erregulatzen ditu basurde eta orkatz populazioak.

Hala ere, haren presentziak gatazka zuzena sortzen du tokiko abeltzainekin, askok otsoa benetako mehatxutzat baitute beren bizimodu tradizionalerako eta bizimodurako. Abereei egindako erasoek presio ekonomiko eta emozional handia eragiten dute, jada zaugarria den sektore batean. Gaur egungo erronka da elkarbizitza posible egitea: espeziearen kontserbazioa bermatzea, baina aldi berean abeltzaintza-sektorea modu erabakigarrian babestea, prebentzio-neurriak erabiliz —mastinak eta itxiturak, besteak beste— eta kalte-ordain justuak eskainiz, naturaren kontserbazioa landa-munduaren kontura izan ez dadin

ES

El lobo en Ordunte”

En la Sierra de Ordunte habita un grupo familiar de lobo ibérico (entre 3 y 6 ejemplares), especie protegida por el LESPRES desde 2021. Al ser el principal corredor biológico de entrada a Bizkaia, su presencia es vital para el equilibrio del ecosistema, ya que regula de forma natural las poblaciones de jabalíes y corzos.

Sin embargo, su existencia genera un conflicto directo con los ganaderos locales, quienes ven en el lobo una amenaza real para su sustento y su estilo de vida tradicional. Los ataques al ganado suponen una presión económica y emocional difícil de sostener en un sector ya vulnerable. El reto actual es lograr una convivencia posible mediante la preservación de la especie y el apoyo decidido al sector ganadero, utilizando medidas preventivas como mastines y vallados, junto a indemnizaciones justas que garanticen que la conservación de la naturaleza no sea a costa del mundo rural.



EU

Lanzas Agudas”

Jaitsieran, helmugara iritsi aurretik, ibilbideak azken opari bat eskaintzen digu: Balgerriko pagadia. Izen bereko mendiaren magaletan kokatua, Bizkaiko pagadirik zabalena da eta Enkarterriko altxor natural handienetako bat.

Baso honetan ibiltzea biodibertsitate handiko ekosistema batean barneratzea da: giro isil eta ilunean, pago ikusgarriak haritz, gorosti eta urkiekin batera hazten dira.

Basoz eta larrez osatutako mosaiko aberatsa zeharkatu ondoren —antzinako artzain, ikazkin eta meatzarien aztarnak oraindik ikus daitezkeen lekuetan—, bidezidorrak azkenean Lanzas Agudas auzora eramango gaitu, Karrantzan, Enkarterriko bihotzean barrena egindako etapa honi amaiera emanez.

ES

Lanzas Agudas”

En pleno descenso, antes de alcanzar el destino final, la ruta nos ofrece un último regalo: el Hayedo de Balgerri. Situado en las laderas del monte del mismo nombre, es el bosque de hayas más extenso de Bizkaia y uno de los grandes tesoros naturales de Enkarterri.

Caminar por este ecosistema de gran biodiversidad supone adentrarse en un ambiente silencioso y sombrío donde las majestuosas hayas conviven con robles, acebos y abedules.

Tras atravesar un rico mosaico de bosques y pastos donde aún perduran huellas de antiguos pastores, carboneros y mineros, el sendero nos guía finalmente hasta el barrio de Lanzas Agudas, en Karrantza, poniendo fin a esta etapa por el corazón de las Encartaciones.





GR[®] 123

BIZKAIKO BIRA OINEZ
SENDERISMO
HIKING

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA

Bultzatzailea: Bizkaiko Foru Aldundia

Promotor: Diputación Foral de Bizkaia

Tfn: 94 4067700



Bizkaiko
Mendizale
Federazioa

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

inGenieríaSendo s.l.

